

## Gazte eguna

—Kaixo, Ainhoa, zurekin hitz egin behar dut. Gazte Egunekeo olinpiadetan parte hartu nahi badugu, izena eman beharko dugu!

—Bai, noski! Noiz arte dago irekita izen-ematea?

—Plazak bukatu arte. Lehenbailehen pasa behar dugu Gazte Asanbladaren lokaletik.

—Izena emateko, Gazte Asanbladaren lokaleraino joan behar dugu?

—Bai, ezin da telefonoz egin, 10 euro ordaindu behar dira-eta.

—Zer ordu arte egoten dira lokalean?

—Goizean, ordu bat eta erdiak arte, eta, arratsaldean, ez dakit. Uste dut bostak arte egoten direla.

—Ba, nik gaur ez dut haraino joateko astirik izango.

—Lasai, ni joango naiz.

—Ai, zer ondo!

—Nire kontu, orduan. Gauean deituko dizut berresteko. Gero arte!

—Ados! Gauera arte.